


ERLEA, MAGIA HANDIKO ABEREA

Hiatzinto Fernandorena Setien



NORTASUNA ETA MAGIA

Ez dakit gure artean inork hartuko lukeen erlea aberetzat. Ez, seguru aski. Izan ere mamutxa edo intsektu bat bezala areago kontsideratu izan baitugu. Baina gaur egun, era ofizialean eta Europan gutxienez, *abeltzaintza txikia* delakoaren atalean sarturik dago erlea, belgikar, frantziar, italiar, espainiar... erlezain handiek diru-laguntzen ondorioetarako egin duten borrokari esker. Borroka luzea izan dela esan behar, eta diru-laguntzak ere segurtatu dira, baina ororen buru, aipatzekoa da erlearen **nortasuna** finkatu ahal izan dela.

Eta egia esan, erlearen nortasunak berebiziko garrantzia duela jabetzen ari da jendea bazter guztietan. Ez gizakiaren zerbitzurako produktu interesgarrien sortzaile delako soilik (eztia, argizaria, polena...), baizik eta, bereziki, erleak naturari eragiten dion arnas-berritzeagatik. **Polinizazioa** deitzen den fenomeno aberasgarria gauzatzen du erlea deritzon abere lapatx honek. Ez dugu inola albora utziko idazlan honetan puntu hori, duen garrantziaz ongi oharturik gaude-eta zenbait erlezain.

Bestetik, erlearen nortasuna aipatzean, horren arrazoi nagusia ere aipatu dugu, baina erlearen eta eztiaren ikuspegia baizik ez duen edonorentzat sekulako magia dauka erleak, honako bi oinarri hauengatik: *harridura* eta *beldurra*. Harridura?

Betidanik. Erlezain izan ala ez izan. Zenbat ustekabe gertatzen zaigun erlezainoi ere aberetxo sorgin horren munduan! Eta besteak beste, galdera nagusi bat sortzen zaigu: nork agintzen du familia edo kolonia horien barnean? Erreginak? Ez. Denboraren txarraldia edo negua baldin badator, nork agintzen dio erreginari: *Zu lasai, utzi erruteari, arrautzak ipintzeko zereginari alegia*. Nork agintzen du lan banaketa: *Zuk argizaria egin behar duzu eta abaraskak moldatu. Zuk etxeko lanak eta garbiketa-aren ardura izango duzu. Zuk xelea (erreginaren janaria). Zuk poliziaren lana, atea zaintzea jende arrotzik etxean sar ez dadin. Zuk umeentzako ogia (polena) ekarri behar duzu. Zuk ura. Zuk eztia. Zuk propolioa. Zuk... haizagailuaren lana (udako bero handian) eta negua heldu dela usaintzean, zirriztu guztiak itxi, eta zuk eta zuk eta zuk, berogailua martxan*. Esan behar da, gainera, ahapetik eta isilpean, baina, neguaren atarian erlamandoak garbitu egiten dituztela, eta hil eta gero gorpuak etxetik at botatzen dituztela. Nire lagun erlezain batek hala esaten du: *Feministek balekete...!*

Erlezain ez denarentzat beste erabateko magia du erleak. Esaterako, ikastoletako haurrak gure erleak bisitatzeraz etortzen direnean, ez dira galde eta galde aspertzen erlearen berri jakin nahirik. Eta alabaina, harriduraz aparte, beldurra eragiten du erleak. Eguraldi zakarra edo oso beroa ez bada, erlea bere lanean normal-normal ibili ohi da. Zakurrarekin gertatzen dena gertatzen da erleare-

kin ere. Zu urduri eta beldurrez hurbiltzen bazaizkio, espantuka esan nahi da, berehala etorriko zaizu erlea eta behin batek ziztada eginez gero, ospa handik lehenbailehen; bestela, bat ez, hamar izango dituzu gainean. Ziztadarekin, pozoiaz aparte, usain nabarmena izaten baitu eztenak eta berekin daraman poltsatxoak, alarma pizten da eta berehala mugitzen dira erleak. Gainerakoan, alergikoa denarentzat da beldurgarri. Hamar mila lagunetik bat izaten omen erlearen pozoia alergidiona, baina hura zu baldin bazara, eta erleak heldu badizu, ospitalera ahalik eta lasterren. Alergia arindu edo ezabatze bideak ere badira.

ERLEZAINAK ETA EZTIA

Negualdi luzearen ondotik heldu da aurten ere udaberria. "Ez nahi ordurako!", esango zuen base-ritar, artzain, bara-tzezain batek baino gehiagok. Eta erlezain askok, duda-muda handirik gabe. Gainera, Gipuzkoan erlezain gehienak amateur edo afizionatu hutsak gara, hor zehar 500-700-1200 edo 2000 erlauntzekin lanean ari direnekin konparatuz gero. Horregatik diot afizionatuak garela hemen. Gipuzkoako erlezainik gehienok 6-8 edo 10-12 erlauntza ditugu. Badira bakar batzuk 40-60 dituztenak, eta bat edo beste 100etik gora dituenak.



Garai bateko erlategia, Lodosa (Nafarroa).

Ez gara erlezaintzara dedikatzen hemen, salbuespenen bat edo beste izan ezik. Bestela esanik, ez gara profesionalak, edo ez dugu erlezaintza ogibide. Hemen, erleari gustua hartzen diozu, eta etxerako ezti pixka bat lortzea da gehienon helburua. Etxerako eta adiskideen artean banatzeko hainbat izatea, opari "gozoa" gertatzen da-eta eztia, izan ere.

Lehen, baserri gehienetan baziren hiruzpalau erle, gutxienez, eta historiak dioenez, baserri guztietan izango zen, garai batean, etxerako **gozagarria**. Gero, Ameriketatik azukrea heldu zenean gutxi-



Enborrak, erlauntz moduan erabiliak.

tzen joan omen. Hala ere, Fraisoron daukagu gipuzkoar erlezainok elkartearen egoitza, eta pentsa, 500 erlezain baino gehiago gara bazkide bertan. Gipuzkoarrak soilik, jakina.

Beste gauza bat. Garai batean, eta denbora asko ez dela oraino, ez zegoen oraingo material eta erlauntza moderno hauetakorik. Ahal zen bezala moldatzen zen jendea. Zumitzez edo aienaz egini-ko saskitxo batzuk izaten ziren erlauntzak edo zuhaitz enborrez baliatzen ziren, aurrez horiei tripa husturik. Gainera, erlea nonahi zen orduan; pareta-zuloetan, tximinietan, ganbarako teilatu azpian, enbor zaharretan. Dena den, azken kasu horretan, bazen ohitura bat zinez errespetatua zena. Basoan zenbiltzala erle bat enbor zulo batean aurkituz gero, enborrari gurutzetxo bat ipiniz haren jabe egin ohi zen lehenik aurkitzen zuena, eta gainerako denek errespetua zor eta gorde behar izaten zioten. Bai gorde ere, diotenez.

Nolanahi delarik, gure klima bera ez da batere egokia erle multzo handi bat eduki eta horretatik bizi ahal izateko. Udaberria, askotan, oso egonkortasun gutxiko sasoi izaten dugu, eta berdin udalehena, egunak eta egunak igaro behar izaten ditugulako eurixka nardagarria ari duela. Hala ere, udaberri ona izanik uzta polita bildu ohi du hemen ere erlezainak. **Sahatsa** hasten da lehenik loretan, otsailaren erdialdera edo. Polena biltzeko



Antonio Goikoetxea erlezaintzan erabiltzen dituen tresna eta tramankuluak prestatzen.

egokia erlearentzat. **Txikori-lorea** edo kardabera esaten dena etortzen da gero. Hori handiki maite du erleak, polenaz aparte nektarra ere kentzen diolako. Udaberrian aurrera, zernahi lore izan ohi da, belardi, landare eta zuhaitzetan, eta erleak puri-purian jartzen dira. Bereziki **haran, gerezi eta fruitu-arbolen lorea** da aipagarri, eta **sagar lorea, akazia eta gaztaina** batik bat.

Akaziaren loreak oso emankorra da, baina eragozpen bat dauka: hamabost eguneko epea izaten du, eta euriak jotzen badu, akabo aurtengoa!, eta aurrera egin behar. Hala ere, Hernanin bada erlezain bat, Pikoagako Joan, nik ez dakidana nola moldatzen den: urtero, gutxi-asko, izaten du hark akazia ezia. Puntu honetan gaudenez gero, bidezko gauza irizten diot beste erlezain hernaniarren bat edo beste aipatzeari ere. Lehenik eta behin, Antonio Goikoetxea, Altzuetako semea, gertatzen zait aipagarri erlezaintzan eta erlezaintzaren alde egin duen lan isil, urte luzeetako eta goresgarri-gatik. Gauza bat da erlezaintza, eta bestea berak eguraldi txarrak edo txolarteak aprobetxatuz erlezaintzarako egin dituen tresna eta tramankulu erabilgarri horiek.

Eztiaren puntuari jarraituz, Hernaniko herrira etorri dira hainbat alditan "Ezti onenaren sariak". Iazko lehiaketan Felix Bidegik ekarri zuen sari hori, baina lehenago, oraindik urte asko ez dela, J.M. Aranburu Olazarkoak ere bai, eta bidenabar,

Aparraingo J. Migel Aizeaga bera ere ez dezakegu albora utzi, zeren eta sari bat baino gehiago bereganatua baita azken urteotan Donostia eskualdeko sariketan (2000, 2004 eta 2005ekoetan).

EZTI MOTAK

Gainerakoan, Gipuzkoako ezia mila-lore edo lore anitzeko ezia izan ohi da. Lore bakarreko edo monoflorala esaten dena nahi duenak, hala nola erromero, ezka, izpiliku, basoko edo txilar ezia nahi duenak, Nafarroara jo behar, edo Errioxa eta Burgosko mendietara. Erleak hartu eta hoa gauez paraje horietara! Trashumantzia deritzo jokabide horri.

Eztiarekin ari garenez gero, aipa ditzagun beroni buruzko zenbait berezitasun. Jende askok galdegiten du: *Emaidazu katarroarentzat ona den ezti bat.* Eta katarroarentzat ezti mota guztiak direla onak izan ohi da nire erantzuna. Bestalde egia da ezti mota batzuk eraginkorragoak direla kasu horretan. Esaterako, ezkaiaarena edo eukalituarena. Bestetik, guztiz finak dira erromeroaren eta izpili-kuaeren eztiak, zapore berezi atseginekoak. Horiek dira haurrentzat ere hoberenak. Eta mila-lorea, jakina. Bestela, badakizue hurrekin zer gertatzen den. Zapore azkarreko ezti bat dastatzeko eman haur bati, eta zapore gogorreko ezti bada, urteetan eztiari muzin egingo diola.

Hala bada, txilar ezia, mendi goietako ezia izaki, aski gorputz sendokoa eta azkarra dugu. Honen parekoa da basoko ezia esaten dena. Gauza bitxi bat gertatu da, hala ere, basokoarekin. Orain arte gaztelan eztiaren mailarik ez zuen zerbait zela esaten zen (*melaza, mielato...*), eta hein handi batean mesprextatua edo baztertua zen. Ulertzeko: oliba olioarekin gertatu izan denaren antzera. Orain, analisi kimiko batzuen arabera, basokoa omen da mineralen aldetik (*magnesio, kaltzio, potasio...*) ezti-rik aberatsena, eta beraz, merkatuan garestiena, berau delako jende adineko, operatu berri, kirolari, estresatu eta jende nekatuarentzat aproposena. Ezti azkarra nolanahi ere, eta berak daukan berezitasunik handiena zera da, ez dela lore ezia, beste guztiak diren bezala. Basokoa esatean, erleak zuhaitzari (arte gehienbat) kentzen dion ezia dela esan nahi da. Hitz bitan esateko: udako be-roarekin edo harri jasa edo haize bolada zakar baten ondorioz, zuhaitzak zauriren batzuk jasaten dituelarik, izerdi sendagarri bat jariatzan du zauri horietan, izatez nektarra dena eta erleak ezti bihurtzen duena. Ez da besterik.

Gaur egun, ezia ez da soilik gozagarria, nahiz eta baden jenderik azukre zuria edo beltza erabat baztertuta eta eziaz baliatzen dena. Ez geroz eta gutxia-

go. Urdailak azukrea baino askoz aiseago digeritzen duela ezitia, gauza jakina da. Bestetik, ezitia sukaldaritzan sarturik dago. Eztiarekin gozokiak egiten dira, baita xaboia, xanpua eta abar ere, eta kosmetikan leku berezia dauka.

ERLEAREN EKOIZPENAK

Gure buruan eztiak dauka lehentasuna erlearen ekoizpenen artean, baina besteak ere ez dira garrantzi gabekoak, esan nahi baita, **argizaria**, **propolioa**, **polena**, **erregina-xelea** eta orain... **pozoia**, gainera, geroz gehiago aintzat hartzen ari diren produktuak baitira edonon ere.

Argizaria hartu dut bigarren lekuan aipagai, elementu hori tradizio handiko zerbait izan delako Euskal Herriaren historian. Egungo argindar hau (elektrizitatea) ez zenean, ilunpean argi egingo bazen, argizaria zen elementu nagusia. Etxe barnean eta ilunpe beltzean berdin, farola hartuta kalera jaistean. Beste era batera ere etxeetan ezin besteko elementua zen argizaria: sendabelarrekin ukenduak egiteko; altzariak (kutxak, armairuak, oholezko zoruak...) leun eta garbi mantentzeko; tximistak jotzen zuenean, erramu eta kandela bedekintua pizteko; elizan hildakoen alde bildumena edo luzea hilobi gainean ipintzeko.

Izan ere, esan gabe doa, garai batean (1800ean eta...), kolera izurritea gertatu zen arte, hildakoei

elizaren barnean lur eman ohi zitzaiela eta baserri edo etxe bakoitzak bere hilobi jakina zeukala elizan, eta han jarri ohi zela etxeoandrea bere kandela eta eskaintzarekin elizkizun nagusietan. Hori nola zen ikusi nahi duena, doala Amezetako parroki elizara, ohitura hark herri horretan oraino jarraitzen duelako, nik dakidanez.

Bestetik, egun, gauza bitxia iruditu arren, berebiziko garrantzia zuen hilobiak. Hara, baserria saldu eta beste nagusi edo jabe baten eskuetara pasatzen baziren etxea eta lurrak, elizako hilobiaren eskubidea ere, eskubide sakratua, jabetza horretan sartzen zen. Bestela esanik, ezin uka hilobiak, argiak, argizariak eta... hein batean erleak ere bai, oro har, erlijio zentzurik ez zutenik. Marko horren barne jarri behar da, esaterako, etxeo nagusi zaharra hiltzean, baserriaren ardura hartzen zuen nagusi berriak eman beharreko lehen urratsa erlategia bisi-tatzea izan ohi zela. Zeremonia hura burutzeko, kapa soingainea hartzen zuen, eta kapelua buruan, eta erleetara joan eta esaten zien: "*Horra, nagusi zaharra hil da, ni nauzue orain nagusi berria*". Esaterako, Zuberoako Liginaga herrian, honako formula hau erabiltzen omen nagusi berriak, kax-kax eskuaz erlauntza jotzen zuelarik: "*Jazar zite, buruzagia hil zaizie*".

Gurean, ezitia eta argizaria, beste leku batzuetan argizaria eta propolioa, beste batzuetan ezitia eta propolioa (antzinako Egipton), eta esnea eta ezitia (Biblian), izan dira estimutan, gehienbat. Ezitia,

argizaria eta propolioa duela milaka urtetik hona zaizkio ezagunak gizakiari, funtsean eta maila ezberdinetan osasunarekin garrantzi handiko lotura izan eta dutelarik. Harrigarria, hala ere, zera da: polena, xelea eta pozoia, esaterako, atzo goizekoak direla. Ezagunak ziren hiru elementuok berebat, jakina, baina ondorio osasungarria zutenik jakin gabe. *Apiterapia* deitu izen modernoak dauka osasunarekiko elementu guztion loturak. Hirurogei bat urtetik hona egin dira benetan ezagun zentzu horretan polena eta xelea, eta harrez-



Kolore nahiz zapore ezberdineko eztiak.



kero merkaturatzen hasi. Pozoiarena da bitxia. Horrek, esan dezagun, atzo arratsaldean (ez goizean) erakutsia duela bere burua.

Apiterapia aipatu dugunez, antzinatik bederen, **propolioak** izan du nagusitza. Oroitzen naiz, duela hiru bat urte Iruñeko Erlezainen Elkartean Hugo Agirre argentinar apiterapeuta hark, ikastaroa ematera etorrira, hasiera beretik esan ziguna: *"Oroit, erlezainok etxean duzuela farmazia"*! Bidenabar esan dezadan Argentina eta Kuba direla arlo horretan aurrerapenik handienak egin dituztenak. Bestetik, Argentina da eztiaren munduko esportatzaileetarik bigarrena ere.

Propolioa zer den? Nik neuk erleen **botikina** dela erantzuten dut, arrapalada batean. Erretxinaren antzeko substantzia bat da, erleak zuhaitz eta landareetatik jaso eta lantzen duena. Zirriztuak itxi eta zoko guztiak betetzeko modua egiten du erleak bere etxean. Onddo, bakterio eta horrelakoe-tatik babesteko baliatzen da horretaz. Esaterako, udaberrian bazoaz erlauntzak bisitatzeraz maiz atzematen duzu erlauntzaren barnean tximeleta handi bat, sagua edo sugandila. Erleak hil egiten ditu, baina ezin atera. Erleak zer egiten dute, orduan? Usteltzen ez uzteko eta gaixotasunik etxera ez sartzearen, propolioaz momifikatu, horra. Hortik ikasia izango zuten antzinako egiptoarrek faraoi eta handikien gorpuak momifikatzeko propolioaren erabilera seguru asko.

Horretaz gain gure kasuan zertarako erabiltzen den? Eztarriko marranta eta birrikak garbitzeko eta larru azaleko onddo, ekzema, urradura edo zauri eta zartadurak sendatzeko. Erredurak ere bai. Gaur egun, likido (tintura) edo xaboi edo krema bilakaturik aurkituko duzu merkatuan. Nik neuk txikle bezala ere askotan erabili ohi dut ahoan. Adibidez, iodo tintura soilik antiseptikoa den bezala, propolioarena antiseptikoa eta antibiotikoa da, aldi berean. **Sendagailu naturala** delako dauka halako balio edo estimua.

Lore hautsa da, izatez, **polena**. Hauts fina. Erleku-meen ogia deitzen zaio erlezainen artean, halaxe da-eta, izan ere. Lore hautsa arra eta emea izaten denez, erlea bere bilketa lanean lorerik lore dabile-larik, bi elementuok (ar-emeak) gurutzatzeko bidea egiten du. Hauxe besterik ez da polinizazioa derit-zon fenomeno. Gero aipatuko dugu hori, orde.

Lore hauts fin hori, pazientzia handienaz bildu, bolatxoak egin, atzeko zango banatan dauzkan poltsa biak bete eta etxera garraiatzen du erleak. Umea dagoen hurbileko abaraskan, zuloetan metatzen joaten da. Erlezainak erleari atakaren sarreran tranpa berezi bat ezartzen dio eta halaxe lortzen da merkatura heltzen den erlearen polena

esaten dena. Polenaren propietateak basoko eztiari buruz esan ditugunen antzekoak dira; hots, guztiz aberatsa da bitamina, mineral eta aminoazidoetan. Besteak beste, prostata arazoak dituen gizonekoaren duen eragina da bereziki aintzat hartzekoa. Esan beharrik ez dago polenak eta basoko eztiak aski ongi konbinatzen dutela elkarrekin.

Erdi Aroan, eta aurretik ere bai, entzuna daukat norbait hiltzeaz edo hilik zegoen jakiteko erabiltzen omen zutela erlearen ziztada. Erleak berekin darama poltsatxo bat eta hor **pozoia**. Lehenik esan behar da, ziztada ez dela hozkada. Esaterako liztorren eta inurrien heldua hozkada izaten da. Erlearena ez. Erleak atzealdean organo berezi bat dauka eta horretaz baliatzen da heltzeko. Zahato ñimiño baten eitea du: ahoa (eztena) eta poltsa. Eztenak zulatu eta poltsak pozoia jariatu. Injekzio bat funtsean. Horra, erlea erizain bilakatua.

Eta halaxe da, ezin uka inola. Pozoia, gaur egun, krema modura edo injekzioetan aurkituko duzu medikuntzan, baina naturopata edo apiterapeuta zenbaitek erleak dauzkate beren baratzeetan edo, eta handik kutxa batean behar dituenak hartu, senda gelara eramane eta pintza batekin zuzenean ezartzen dio erlea gaixoari min duen puntuan zizta egin eta pozoia sar dakion. Pozoia zertarako den? Erreuma, artrosia, hezurretako gaixotasunak, bihotzeko arritmia... sendatzeko, gehienbat.

Erregina-xelea aipatu behar dugu hemen. Nire lagun erlezain batek xeleari buruz esaten duenez, Pio XII. Aita Santua ere erregina-xeleari esker bizi izan omen bizitzako azken urte edo egunetan. Ez dakit egia den. Beste gauza bat dago garbi, honetan. Erlea, erle normala, bizpahiru hilabete baino gehiago ez dela bizitzen uda sasoian, neguan gehixeago. Eta erregina? Erregina lau edo bost urte. Atera kontuak!

Soilik erreginaren janaria da xelea. Analisi modernoan arabera, badakigu janari benetan azkarra dela xelea. Bideanabar esan dezagun 1952. urtea arte ez zirela ezagutzen erlearen xeleak zer-nolako ahalmenak zituen giza osasun eta ongizatearen faboretan. Ahuleziak jota dabilen gaixoarentzat da benetan bizkorgarri eta aproposa. Erlezainarentzat lortzen edo eskuratzen aski zaila den produktua, bestetik. Oso delikatua. Hozkailuan gorde beharrekoa eta egunero mihiaren puntan amiñi bat hartzekoa dena.

ERLE BELTZA

Erle mota asko daude munduan zehar, dakigunez. Hego Ameriketara lanik asko badute orain, bertakoaz aparte, esate baterako, erle hibrido afrikani-

zatuarekin. Eztigilea bai, baina hagitz gaiztoa eta oso kontuan ibili beharreko erlea den albisteak ditugu. Guk, hemen, besterik daukagu.

Bizpahiru erle mota dira gure ingurumen honetan ezagunenak. Nik neuk ikusia dut "ligustika" (*Apis mellifera ligustica*) deitu kolore horiko erle aski goxo eta emankorra dena. Beste bat, buckfast ize-nez ezagutzen dena, irlandar monje batek hibridazio lan askoren ondotik sortua. Hori bai, hori urte askotan eduki dugu, zinez xaloea eta eztigile aparta delako. Pena eman zidan albo batera utzi beharrrak. Zergatik? Orintxe esango dut: beste bat delako bertako arraza, *Apis mellifera mellifera* delakoa. Beltza da kolorez, eta aski gorputz handikoa. Berau da hasi Alemaniatik eta Frantziar barna Espainia hegoalderaino zabaldurik dugun arraza nagusia.

Eta zer gertatuko, eta Pirinioetako mendikatearen albo bietan erle mota hori hain ongi txertatu delarik, iraupen eta erresistentzia handieneko erle mota horixe dela gurean. Gure klimari (hezea, hotza...) egokitu egin zaiola –mendeen poderioz, jakina– eta bertako egin edo bilakatu dela, horra. Erle beltza, noski, baina **ekotipo** berezia. Ulertzeko, hemengo ardiari buruz esan dezakegun gauza bera: iledun ardia dugu hemen, bustiari gogor egiteko prestatua dena etab.

Hala, Gipuzkoako Erlezainen Elkartek bertako erle hori, erle autoktonoa, betidanik ongien gurera egokitzen dena dela ikusita, ahalegin handienez gure erlea sustatzeko bideari ekin zion duela urte batzuk, esfortzu eta diru asko eralgita. Bi gune aurkitu ziren kutsadurarik gutxienekoak zirenak: Goizueta eta Arantzazuko erreka zokoa. Haietatik erlamando eta erreginak hartu eta gure horri buruzko lan polita egiten ari da, aldi berean Unibertsitatek ere azterlan sakona egiten dihardu.

POLINIZAZIOA ETA BARROA

Gorago esanik daukagu lore hautsaren elementu arra eta emea erleak gurutzatzen dituela, guretzat kalitate handiko produktu osasungarria den hori (eztia) biltzen duen bitartean eta horixe besterik ez dela **polinizazioa** deritzon fenomeno.

Hala bada, esan gabe doa, polinizazioak landareen bizitzan ezin gehiagoko garrantzia duela, zeren eta lorea ernaltzeaz aparte, fruitua eta hazia garatzeko bidean ipintzen baitu landarea, hori zernahi delarik ere, fruitu arbola, barazkia edo belarra. Hazia eta fruituaren produkzioa ugaltu egiten ditu erlearen polinizazioak, eta ugaltu ez ezik, horien kalitatea hobetu ere bai. Horren berri ondo dakite hemengo zenbait frutazain eta sagardogilek.

Esaterako, adibide bi emango ditut. Ekilorez ereindako soro batean %30-40ko igoera kalkulatu da produkzioan. Bestea, Argentinatik udarea edo sagarra esportatu ahal izateko, nahitaezko dute erleak polinizatua izatea, fruta barrutik ere sanoa-goia delako, agidanez.

Biologiaren ur handitan sartu gabe, polinizazioa bi modutan gauzatzen dela esan behar da. Haizea da polenaren garraioa egiten duena kasu askotan, pinu eta horrelakoen kasuan. **Polinizazio anemofiloa** deritzo horri. Eta intsektuek burutzen dute bestea, **polinizazio entomofiloa** deritzona. Eta oso gogoan hartu beharrekoa: erlea dela beste intsektu guztien gainetik (liztor, tximeleta, kakalardo, inurri...) %75eko proportzioan polinizatze lan izugarria egiten duena. Datu hau ikusita, jakitunak argi eta garbi esaten ari dira zinez aintzat hartu beharrekoa dela erlearen presentzia eta beronen lan garrantzitsua, naturaren osasuna benetan zaindu nahi bada, behintzat. Bestela desertizaziorako bidean goazela diote.

Gainera, arazoa askoz larriagoa bilakatu da hogei bat urtetik hona. Arrazoiak? Erle basatia esaten dena (pareta zulo, enbor...) desagertu egin dela. Zergatia hauxe da: **barroa** deitu akaroa dugula erlezainok gure erlategietan, eta urtean behin edo bitan tratamendua eman ezean, erlerik ez genukeela izango. Basatiak desagertu diren bezala... Nahikoa buruhauste eman ohi digun akaro nardagarria hauxe!

Ahal den ximpleen, puntu edo arazo sakonagoak albora utzita, erleen munduari buruz hainbat gauza jakingarriren berri ematea izan da gure asmoa. Irakurle, hemen esandako asko eta asko gauza ezagunak izango dituzu, eta agian, hemen esan ez den besterik ere bai. Ez bainaiz inola ere gaia agortzeko asmotan ibili. Izan ongi!



Erle bat hosto-begi batetik propolioa biltzen.